

Ikaskide proiektua 2009/10

## **EBALUAZIOARI BURUZKO GOGOETAK**

### **1. EBALUAZIO MOTAK**

Ebaluazio mota nagusiak (eta hauek egiterakoan maiz darabilzkgun galderak):

- Hasierako ebaluazioa (pronostikoa egiteko egokia):
  - ✚ Ikasleak ba ote ditu gai honekin hasteko nahiko ezagutza?
  - ✚ Zer daki, “non dago” ikaslea abiatu behar duen prozesuarekiko?
  - ✚ Ba ote ditu behar diren gaitasunak/baliabideak?
  - ✚ Nola nago ni, irakaslea? Ba al ditut nahiko ezagutza eta trebezia?
  - ✚ Ongi prestatu al dut egin nire irakasle lana egiteko behar nuen guztia?
  - ✚ Ba al dut behar adineko baliabiderik?
- Ebaluazio formatiboa (momentuan momentuko *diagnostikoa* egiteko, guztion auto-erregulazioa ahalbidetzeko eta prozesuaren birmoldaketak bideratzeko egokia):
  - ✚ “Non gaude” momentu honetan? Zenbateraino ari naiz/gara eskuratzen helburu gisa adierazi ditudan kompetentziak?
    - Orokorrak
    - Espezifikoak
  - ✚ Non dago ikasteko zailtasuna?
  - ✚ Zer ari gara gaizki egiten? Eta ongi? Zeren arabera?
  - ✚ Nola hobetu dezakegu prozesua?
- Ebaluazio sumatiboa (Datuak/emaitzak kontrolatzeko eta ikasleak kalifikatzeko):
  - ✚ Ulertu al du esan diodana? Ongi egin al ditu ariketa hauek?
  - ✚ Zenbat ikasi du? Zein neurritan lortu ditu kompetentziak?
  - ✚ Definizio hau ezagutzen al du? Ba al daki hau edo bestea egiten?
  - ✚ Nola kalifikatuko dut ikaslea? Zeren arabera? Zer nota jarriko diot? Eta zein ohar osagarri? Nola azalduko diot hau guztia ikasleari? Eta gurasoei?

### **2. ZER GERTATZEN DA MAIZ, EBALUAZIO SUMATIBOA BESTERIK EGITEN EZ DUGUNEAN?:**

- Ez ditugu analizatzen azterketen emaitzak (denbora edo baliabide faltagatik) eta, ondorioz, nekez hobetzen dira emaitza horiek.
- Ia ez dugu aukerarik azterketa ondoren zer den benetan ikasi duena, “gelditu zaiona”, eta are gutxiago ikasitako horrek irauten duen ala ez, beraz, ikasketen jarraipenerako0 baliagarriak egingo zaizkion ala ez...

- Berez balore erlatiboak direnak absolutu bilakatzen ditugu promoziorako (galderen %60a gainditu beharko da, 20tik 10ondo erantzun beharko dira gaia gainditzeko...).
- Notak lortzeko eta azterketak gainditzeko dinamikak sortzen dira maiz ikasleen artean, benetako ikaskuntzak erregularki garatzeko dinamiken ordean. Irakaslea aztertuko, “ikasiko” dute ikasgaia baino gehiago...
- Azterketek eragiten dituzten herstura egoerek fidagarritasun mailan eragiten dute.
- Ebaluazio sumatiboak nekez emango digu zailtasunei buruzko informazioa, beraz, erremediaziorako eta prozesuaren hobekuntzarako bideak ez dizkigu erraztuko...
- Ikasleak ez du ia aukerarik bere auto-erregulaziorako eta auto-ebaluaziorako eta zailtasunak ditu ikaskuntza prozesuan hobekuntza nabariak egiteko. Ondorioz, maiz ematen da ikasleak bere buruari buruz duen iritzia (ikasi duenaren gainean) eta azterketaren emaitzaren arteko dibergentzia eta azterketek eragiten duten “arbitrariedade” sentsazioa.
- Irakasleak ez du bere dispositibo didaktikoa eta, oro har, bere lana ebaluatzen. Horrela, badirudi hezkuntza erakunde guztietako irakasle guztiak onak direla, euren dispositibo didaktikoak akatsik ez duela, ikaskuntza prozesuaren aurretik eta gertatzen den bitartean dena bikain prestatzen eta bideratzen duela, beharrezko baliabide guztiak dituela...

### 3. EBALUAZIO FORMATIBOAN SAKONTZEN...:

- **Helburuak:**
  - ✚ Ikaskuntzaren progresioa egiaztatzea.
  - ✚ Ikaste-irakaste prozesua optimizatzea, garatzen den bitartean.
  - ✚ Ikasleari laguntzea, lortzen ari denaren eta falta zaionari buruzko erreferentziak hartzen.
- **Ezinbesteko baldintza:** ikaste-irakaste prozesuan inplikatuak dauden guztien parte-hartzea.
- **Ezaugarriak:**
  - ✚ Notarik gabea da.
  - ✚ Prozesuaren ebaluazioa ere suposatzen du, beraz, irakaslearen dispositibo didaktikoa ere baloratu behar da (proposatu duen ikasgaiaren egokitasuna, erabiltzen duen metodologia, baliabideak...).
  - ✚ Ikasleak auto-erregulaziorako tresnak behar ditu, ikaste-irakaste prozesuaren bilakaeran bere burua kokatzeko:
    - Aurrezagutzen kontzientzia.
    - Lortu beharreko helburuen (garatu beharreko konpetentzien) ezagutza eta kontzientzia.
    - Ikaste-irakaste prozesuaren garapenean eta bilakaeran, bere burua kokatzen lagunduko dien adierazleak eta tresnak. (kontrol zerrendak, testak, proba-egoerak, arrakasta-irizpideak...).
    - Bere aukeren, gaitasunen, baliabideen kontzientzia.

- Aurreko guztiak egiteaz gain, auto-ebaluazioak eta ko-ebaluazioa (ikaskideen artekoa eta ikasle-irakasle artekoa) eginez gero, ebaluazio formatiboak bere mailarik gorena hartzen du...

Hau dena eginez gero, ebaluazio formatiboa:

- ✚ Etengabea da, hau da, prozesuak irauten duen denbora guztian egin beharrekoa.
- ✚ Hezitzailea da, hau da, ebaluazio formatiboa bera ere ikaskuntza-ekintza da, bere bidez ikasleak ikasi egiten baitu.
- ✚ Dinamikoa da, izan ere, auto-erregulazioaren eta feedbacken bidez, ikasle-irakasleek etengabe birbideratzen dute ikaskuntza prozesua.
- ✚ Ikasle-irakasleentzat lagungarria da, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan sortzen diren arazoak identifikatzen baititu, sortzen diren momentutik.
- ✚ “Ekonomikoa” da, izan ere, prozesua gaizki bideratua dagoenetan, atzerabide laburrekin konpon daitezke arazoak, denbora luzean bide okerretik jarraitu gabe...
- ✚ Gardena eta demokratikoa da: guztiek hartzen dute parte eta ikasleek momenturo dakite zein den helburua (zer ezagutzeko, egiteko, izateko gai izan behar duten), zertan ari diren, zer duten oraindik egiteko.
- ✚ Exijentzia handikoa da irakaslearentzat, programazio eta exekuzio lanak handiagoak eta konplexuagoak egingo zaizkigu-eta.

#### 4. EBALUAZIO TEKNIKA ERABILIAK

##### ✚ *Kualitatiboak:*

- Galdera irekiez osatutako galdeketak.
- Bakarkako edo taldeko elkarrizketak.
- Jarrera pertsonalei loturiko testak.
- Aktak (indibidualak edo taldekoak).
- Portafoliak, ikaste koadernoak.
- Soziogramak
- ...

##### ✚ *Kuantitatiboak:*

- Ezagutza-testak.
- Galdera itxien bidezko galdeketak.
- Erantzun anitzeko galderen bidezko galdeketak.
- Aurretik finkatutako baldintzen arabera probak.
- Asistentzia maila.
- Aurreko tekniken konbinaketan bidezko azterketak.
- Rubrikak (matrizak)

## 5. IRAKASLEAK AURRETIK EBALUATU/GOGOETATU DAITEZKEENAK:

- *Helburuekiko:*
  - Ikasle taldearen ezaugarriekin konpatibleak al dira helburu didaktikoak?
  - Ikasleen igurikapenekin bat al datoz?
  - Ondorengo ikasketekin, ingurunearekin, ikasleen testuinguruarekin... lotuak al daude?
- *Edukiekiko:*
  - Helburuekin korrespondentzian al daude?
  - Ikasleen gehiengoarentzat eskura al daude?
  - Programatu dugun guztia landu al dugu?
  - Gaizki landu/asimilatu ditugun programaren zatiak ezagutzen al ditugu?
  - Ikasleen zailtasunak kontuan hartu al dira?
- *Metodologiarekiko:*
  - Aurreikusitako helburuekin bat al datoz? Haien zerbitzura al daude?
  - Aktibitate pedagogikoetan ba al zegoen nahiko aberastasun eta barietate (kasuen azterketa, bisitak, talde lanak, bakarkako lanak, informazioaren bilketa, hausnarketa pertsonala, lan praktikoak, esperientzien trukaketa, irakaslearen azalpenak, teoriekiko loturak...)?
  - Gelako aniztasuna kontuan hartu al dut? Nola? Zertan?
- *Baliabideei eta antolaketa materialarekiko:*
  - Antolatu ditugun (ikasleen eskura jarri ditugun) baliabide pedagogikoak lagungarriak izan al zaizkie ikasleei? (dokumentu idatziak, audio/bideoak, internet bidezkoak, bestelako dokumentu/tresnak...).
  - Antolaketa materiala egokia izan al da? (gelen egokitasuna, egutegi/ordutegiak, lan-erritmoa, sekuentzien iraupena...).
- *Irakaslearen lanari buruzko beste zenbait eragileekiko:*
  - Nahiko denbora eta baliabideak eskaini al dizkiot klaseen prestaketari?
  - Nire azalpenak egokiak izan al dira?
  - Talde kudeatzaile egokia izan al naiz?

- Ereditu egokia izan al naiz? (modelaje lana egin al dut?).
- Gaia behar bezala menderatzeko nire prestakuntza egokia al da?
- Eskaini al diot nire buruari gaia hobeto menderatzeko prestakuntzarako/eguneratzeko nahiko denbora eta baliabide?
- ...